



FLORID



IÑAKI LUIS FAJARDO

Lumby: “Somos más que las voces en nuestra cabeza”

IRATXE MARTÍNEZ

El titular de este artículo sale de una escena de *FLORID*, la ópera prima de Billy Lumby (Reino Unido), en la que escuchamos hablar a diferentes miembros de un círculo de apoyo para personas con esquizofrenia. Y es justo lo que el film te hace ver (y sentir), que las personas con esquizofrenia son más que las voces en su cabeza.

Es un tema delicado. O tabú. O es delicado precisamente porque estaba. La esquizofrenia es uno de los trastornos mentales con más estigma social y discriminación en la sociedad. Lumby, que se declara fan de Luis Buñuel y está deseando probar los *pintxos*, lo sabe y por eso decidió que daría el salto al largometraje para “visibilizar y concienciar”: “A menudo, en las películas de terror, se percibe a las personas que oyen voces como peligrosas o violentas. La única vez que se menciona en las noticias a personas con diagnóstico de esquizofrenia es en un contexto negativo. Esto no refleja la realidad del colectivo de personas con problemas de salud mental. Es sumamente raro que alguien con diagnóstico de esquizofrenia cometa actos violentos. Con esta película, no

pretendía necesariamente emprender una cruzada para cambiar la opinión de la gente; mi objetivo era, sencillamente, mostrar la realidad”, explica el cineasta.

FLORID es un duro y asfixiante (pero auténtico) relato de la esquizofrenia en primera persona. Jamal, diagnosticado con esquizofrenia, vive en una residencia junto a otras personas con problemas de salud mental. Frustrado por los efectos secundarios de su medicación, deja de tomarla, lo que provoca que las voces que oye se vuelvan más frecuentes e intensas. Con un estado de ánimo cada vez más inestable, Jamal entabla amistad con Kyla, otra residente. Sin embargo, a medida que las voces se intensifican, Jamal debe enfrentarse a la difusa línea que separa la realidad de los sucesos que vivió su familia en el pasado para lograr reconciliarse con esas voces.

La película no es autobiográfica, pero Lumby escribió el guion basándose en la experiencia de un amigo cercano y en la suya propia. “He tenido mis propias dificultades de salud mental y eso me ha afectado en el trabajo y en la vida personal, así que quería expresarlo y mostrar cómo es a la gente que no entiende

la salud mental”. Para documentarse, en colaboración con la comunidad de salud mental de Londres, el director investigó a fondo el sistema psiquiátrico del Reino Unido y se entrevistó con diferentes personas de hospitales psiquiátricos y albergues para personas sin hogar. “Muchos de los actores de la película no han actuado antes, eran no profesionales. En el film aparecen personas reales con esquizofrenia, otras con trastorno bipolar, trabajadores sociales reales... Hay mucha improvisación en el film para darle autenticidad”, explicaba Lumby.

FLORID es una película intensa con un ritmo y puesta en escena abrumadores que el espectador vivirá con angustia y desazón. Las mismas que experimenta el protagonista. El director es consciente de su arriesgada apuesta: “Si a todo el mundo le gusta la película, creo que es mala señal. Me gusta hacer películas que desafíen a la gente y que pongan nuevas ideas sobre la mesa. No a todo el mundo le gusta eso”.

No es una película fácil ni agradable, porque la esquizofrenia tampoco lo es, pero es una película necesaria, como todas las películas que nos hacen comprender a los demás.

LOVERS SLEEP ALONE

Bizitza berri bat hasteko erronka

I.M.

Massih Parsaei zinemagileak (Teheran, 1992) txikia zenean Iranetik emigratu zuen. Hungariara joan zen bizitzera 2009an eta han animazioa ikasi, artista bisual gisa lan egin eta film laburrak zuzendu zituen. 2016an, Alemanian finkatu zen eta zuzendaritza-ikasketak hasi zituen Babelsberg Konrad Wolf Zinema Unibertsitatean. Hainbeste urtez etxetik kanpo egonda, zentzua du erbesteari buruzko film bat egin izanak.

Lovers Sleep Alone filman, Alemanian bizi den Iman iraniarrak hainbat absentiaren inguruan eraiki du bere bizitza Berlinen: familiarena, Iranena eta besteengandik ezagutua izatearena. Lanarekin, asmatutako istorioekin eta parkean sexua izateko ikusi ohi duen gizon batekin emandako gauekin betetzen du isiltasuna. Lehengusina (Imanek ia ezagutzen ez duena) Teheranetik bisita labor baterako iristen denean, atzean utzitako hura isil-isilik itzuliko da protagonistaren bizitzara.

Gaur, Massih Parsaei zuzendariak Kutxabank-New Directors sailean aurkeztuko du *Lovers Sleep Alone* bere lehenengo film luzea, eta berarekin elkarriketatu gara.

Zorionak *Lovers Sleep Alone* aukeratuta izateagatik. Ez da zure lehenengo aldia Zinemaldian.

Ez, iaz Donostian egon ginen filma hautatua izan baitzen WIP Europarako. Guztiz esperientzia ezberdina izan zen, garai hartan filma oraindik egiteko prozesuan zegoen eta, izan ere, urduriago nengoen orduan. Baina Zinemaldiak oso ondo hartu gintuen, eta arreta handia eskaini zion filmari. Gure filma aurrekontu oso txikia duen filma da eta hain prozesu luze baten ondoren, energia-mailak baxuak ziren. WIP Europarako lehian parte hartzea bulkada bat izan zen. Orain, filma bukatuta dago eta New Directors sailean aukeratuta izatea lasaigarria da.

***Vertraut / Trusted* (2016), *Ölelések / Embraces* (2018) eta *Über Anna / About Anna* (2018) film laburrak zuzendu dituzu. Film luze batean egin duzu debuta. Film laburrak ala film luzeak nahiago dituzu?**

Film luze bat egiteak lasai asko luzatzeko aukera eman zidan; izan ere, ez naiz oso ona film laburren formatuari eusten (barreak). Zailena ekoizpena eta finantzaketa lortzea izan da.

Hori izan al da zure lehen filmeko erronkarik handiena?

Baliteke, baina aktore-hautaketa prozesua erronka handiagoa izan zen. Oso prozesu luzea izan zen; urtebete eta erdi iraun zuen. Imanek atzerrian bizitzen hasi ondoren daraman egunerokoa erakutsiko zuen film bat egin nahi nuen. Imanek bizitza berri bati nola ekin ez daki eta egoera horretara nola egokitzen den erakutsi nahi nuen. Baina Iman protagonista iraniar gay bat da. European ez daude Irango gizonak aktore askorik eta Iranen rol hori antzeztuko zuen aktore bat aurkitzea ezinezkoa zen.

Eta nola lortu zenuten Pooyesh Frozandeh aurkitzea, Imanen papera (bikain) egiten duen aktorea?

Jada etsita nengoenean, Imanen lehengusina antzeztu duen aktoreak (Ava Darvishi) Pooyesh Frozandeh aktoreari buruz hitz egin zidan. Nire alboan bizi zela konturatu ginen eta kafea hartzerako geratu ginen. Berehala bera zela konturatu nintzen, inolako probarik egitea ez nuen beharrezkoa izan.

Filma esperientzia oso zehatz batean oinarritzen da: erbesteratzea,



Massih Parsaei Iraniar zinemagileak bere lehenengo film luzea dakar.

IÑAKI LUIS FAJARDO

identitate queer-a eta migrazioa. Hala ere, horretatik haratago doan zerbait lortu nahi duela dirudi.

Filma nire esperientzia pertsonaletik sortu da (Iranetik alde egitearena eta denborak sendatzen ez dituen gauza horien). Iman erbesteratutako gizon *queer* bat da; zentzu bat baino gehiagotan bazterrean bizi den pertsona. Berak haztean ezagutu zituen desio-irudien eta orain forma hartzen

ari direnen artean kokatzen da. Ondozagutzen dut tarteko egoera hori. Ez nuen azaldu edo justifikatu nahi haren iraganak nola moldatu zuen gaur egun den pertsona; ez nuen haren sufrimendua irudikatu nahi. Haren eguneroko bizitza eta horren azpian dagoen egoera emozionala erakutsi nahi nituen. Iman ez da alboan besterik gabe igarotzen dugun oinezko hori; aitzitik, harekin geratzen gara.